

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERANTEVILLAKO UDALA

**Hasierako onespina ematea COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoak kaltetutako Berantevillako ETE, autonomo, pertsona edo familientzako aparteko laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen berariazko ordenantzari**

Korporazioak, 2020ko ekainaren 17ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespina ematea COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoak kaltetutako Berantevillako ETE, autonomo, pertsona edo familientzako aparteko laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen berariazko ordenantzari.

Jendaurrean jartzen da interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera; eta jakinarazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko dela jendaurreko epea igarotakoan.

COVID-19k sortutako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez, alarma egoera bukatzen denetik aurrera kontatuko dela epe hori.

Berantevilla, 2020ko ekainaren 22a

*Alkatea*

**MARIO PEREA ANUNCIBAY**